

## BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA

**Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Batzorde Betearazleak, 2025eko abenduaren 16an eginiko bileran, ondoko erabakia hartu du:**

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Gobernu Batzordeak 2025eko irailaren 24an egindako saioan erabaki zuen abian jartzea ordezkapen-kontratu baten bidez berrikuntza-eragile lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesua, borondatezko eszedentzia baten ondorioz hutsik baitzegoen. Halaber, hautaketa-prozesua arintzeko xedearekin, saio horretan bertan eskumena eman zitzaion Batzorde Betearazleari prozesua bideratzeko eta ebazteko.

Agindu horri jarraikiz, aipatu organoak 2025eko urriaren 29an argitaratu zituen lan-deialdia arautuko zituen oinarri eta jarraibideak.

Orain, hautaketa-prozesuaren hiru faseak amaituta, Epaimahai Kalifikatzaileak Batzorde Betearazleari helarazi dizkio prozesuaren behin betiko emaitzak, puntuazio altuena lortu duen hautagaia kontratatzeko eta lan poltsa osatuko duten izangaien zerrenda proposamenekin batera.

Horrenbestez, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Batzorde Betearazleak, lehendakariak hala proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

### ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Amaia Achucarro Goñi anderea izendatzea berrikuntza-eragilea lanpostua betetzeko, ordezkapen-kontratu baten bidez.

**Bigarrena.-** Izendapen horrek 2026ko urtarrilaren 7tik aurrerako ondorioak izango ditu. Kontratazioak borondatezko eszedentzia bat estaltzea helburu duenez, aurreikusitako bukaera data 2027ko abuztuaren 31 izango da.

**Hirugarrena.-** Jarraian azaltzen diren pertsonak Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren lan-poltsa osatzea, adierazten den hurrenkeran:

- Goretti Oreja Michelena
- Tasio Arrizabalaga Aspiroz

**Laugarrena.-** Erabaki hau Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren web orrian argitaratzea eta, aldi berean, interesatu guztiei ere bide elektronikoen bitartez jakinaraztea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Gobernu Batzordeari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Erreteria, 2025eko abenduaren 17a. – Iker Nocedal Bustamante, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko idazkaria.